



Topaketa historikoa

Emakume elkartekideek ere herriko ekosistema soziokulturala osatzen dutela aldarrikatu dute, giro ezin hobean / 2-3

TXINTXARRI

Garaje-tailerreko altxorak

Celestino Rivera herritarrek eskuz eta mimoz egin dituen azken bi lanak erakutsi dizkio TXINTXARRI aldizkariari / 6

Ohiko bilkura aurrera eramán dute. Beste zeinbait gairen artean, LOOPAren mozioa eztabaidatu dute / 4

Oria ibai ondoko pasealekua itxi dute, Michelingo kiroldegi berria eraikitzeko lanengatik / 5

Motorrak hartu eta Gipuzkoan barrena itzulia egiten hasi dira Scooter Club Euskadiko kideak / 7

Xabat Martin eta Andoaingo Txirrindulari Eskolako kideak podiumean izan dira Zarautzen / 10

Itxaso Iparragirre pilotari gaztea Errendimendu mailako Gipuzkoako txapeldunorde da / 13

Norbanakoen izen ematearekin eta bideo lehiaketarekin, abiada hartzen ari da Euskaraldia / 16

multilens PROAI

Zure ikusmenera egokitzen diren,
adimen artifizialarekin
diseinaturiko lente progresiboak.



MULTIÓPTICAS

943 37 74 55
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com   

R.P.S. 91/20



Oaintxe in deu! txarangako lagunekin batera egin zuten ibilbidea emakume elkartekideek. TXINTXARRI



Semblante Andaluz elkartearen atarian jaurti zuten lehen txupina. TXINTXARRI

Errepikatzen modukoa

Herriko elkarteetako bazkide diren emakume ugarik elkar ezagutzeko eta egiten duten lanaren garrantzia nabarmentzeko topaketa aurrera eraman dute. Segida izango du datorren urtean, Semblante Andaluz-ek hartuko baitu Extremadura Etxekoen lekukoa

Lierni Apaolaza Urdanpileta

Ez da inoiz halakorik jazo Lasarte-Orian. Hilaren 16a egun berezia izan zen. Ez dute erraz ahaztuko topaketan parte hartutako pertsonak. Izan ere, herriko elkarte ugarietako hainbat emakume elkarte ziren euren paper garrantzitsua den artean ospatzeko asmoz; herriko ekosistema soziokulturala osatzen laguntzen dutela aldarrikatzeko, hain zuten. Arestian esan bezala, sekula ez da halako ekimenik egin. Alabaina, hurrengo urteetan Extremadura Etxearen lekukoa hartuta, festa honek luzerako ibilbidea izango du. Datorren urtekoa, esaterako, Semblante Andaluz-ekoek prestatuko dute, festa egunean bertan konpromiso hori hartuta.

Emakume Elkartekideen Topaketa elkarte horretan bertan hasi zen. Bertan, txupinazoa egin eta segidan, emakumeak poteatzeari ekin zioten. Kroketa eta arrainarekin egindako salda. Lagunak, berriketan eta ezezagunak, euren artean adiskidetzen, bien bitartean, Oraintxe in deu! txarangak jotako doinuek giroa alaitu zuten.

Segidan, Ttakuneneara jaitsi ziren. Bi elkarten arteko distan-

zia dantzaz egin zuten. Orobat, txaranga aurrean izan zutelarik, emakumeek euren poza kaleko jendeari kontagiatu zieten, pertsona mordoa melodia abestera animatu baitzen. Beste batzuk, gazteak zein helduak, haiek egindako dantzak imitatzen saiatu ziren festarekin bat egitearren.

Giroa "gordetzeko" argazkiak

Iñigo de Loiolan dagoen Ttakunenean poteoarekin jarraitu zuten; han, txistorra pintxoak jan zuten eta sagardoa edan. Bizipozez beteriko paseoak Saustatxoruntz joaterakoan jarraitu zuten. Poteoa bertan amaitu zen. Perretxikoak dastatu zituzten han eta nahi izan zuten ororentzako, ardoa eskura izan zuten. Bi elkarte horietan txupinazoa ere jaurti zituzten. Era berean, kokaleku guztietan talde argazkia egin zuten, topaketa aurrera eramateko lokala eta janaria eman izana eskertzeko. Nola edo hala, irudi horiek giro ederra "gordetzeko" ere balioko dute.

Ondoren, Extremadura Etxera abiatu, eta txarangari agur esan zion taldeak. Horretarako, aurretiaz, Oraintxe in deu! taldeak Concha Velasco artistaren *Chica*

Yé-Yé abestia jo zuten. Bueltan, instrumenturik gabeko *a capela* abesti bat kantatu zieten. Elkarren arteko estimua partekatuta, elkartera sartu ziren eta Bea Egizabalean bakarriketatuz disfrutatu zuten bazkaltzen hasi aurretik. Topaketaren harira, Egizabalek herriko elkarten egoerari buruzko zenbait kontu umorez kontatu zituen. Emakumeek ederki pasa zuten, barrezka, eta, noizean behin, parte hartuta.

Ordubiak. Jateko ordua. Horretarako, Extremadura Etxeko kideek jaki goxoak prestatu zituzten: gazpatxoak, ogi mamiak, eta abar. Otorduarekin amaituta, karaokeari ekin zioten. Binaka eta taldeka, elkarteko zerbitzariak ere kantu bat abestu zuten. Goizeko giro ederrari eutsita, arratsaldea ere halaxe igaro zuten.

Laburbilduz, gogoan izateko eguna izan zen. Parte hartzaileek orain arte Emakume Elkartekideen Topaketa ospatu ez arren, argi erakutsi dute horrelako ospakizuna egitearen beharra, belaunaldi askotariko emakumeak batzeaz gain, euren lana laudatzeko aukera ederra ematen baitie.



Txupinazoaren ostean txarangarekin kalejiran abiatu ziren. TXINTXARRI



Elkarte bakoitzean indarrak berritu zituzten, bapo jan eta edanda. TXINTXARRI



Herriko kale eta bazterrak girotu zituzten topaketako partaideek. TXINTXARRI



Extremadura Etxearen atarian egin zuten dantzan azkeneko. TXINTXARRI



Irribarrea ez zuten une bakar batez ere galdu, ezta bazkaltzerakoan ere, noski! TXINTXARRI



Gogotik egin zuten barre Bea Egizabalen ateraldiekin. TXINTXARRI



Karaoketan abestuz amaitu zuten ospakizun eguna. TXINTXARRI

Antzezlan eta solasaldi bana, bukatzeko

Antzerkiak eta literaturak ere tokia izan dute Martxoaren 8aren bueltan. 'Eta horrela jarraitzen dugu' ikuskizunaren emanaldi-solasaldia egin du KikiliSalda taldeak; Irakurle Txokoko kideek, berriz, Esti Martinez Diaz de Cerio idazlea gonbidatu dute

Txintxarri

Aldarriak lau haizetara zabalteko aproposak dira arte diziplinak. Esate baterako, antzerkia. Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan udalak antolatatu duen egitarauaren barruan, Eta horrela jarraitzen dugu antzezlanaren emanaldia aurrera eraman du berriki Kontxu Iartza eta Puri Fadrique herri-tarrak kide dituen KikiliSalda taldeak Antzezlan horren bidez umoretik eta sotilki jorratzen dute emakumeen historian zehar izan duten tokia, eta baita borroka feministaren ertzak ere. Ikuskizun horrek Obra Sozial Onenaren saria irabazi zuen 2023an, Bilboko P6 Antzerki Laburren sariketan.

Aurtengo programa itxi duen jarduera Irakurle Txokoko lagunek aurrera eraman dute. Hila-bete honetako saioan *Animalia domestikoak* ipuin bilduma jorratu dute, berau idatzi duen Esti Martinez Diaz de Cerio gonbidatuta. Ohi bezala, Aintzane Usandizaga idazle lasarteoriatarak dinamizatu du solasaldi literarioa eta minutuek aurrera egin ahal egile nafarraren inguruan bildu diren irakurleek hartu dute hitza, liburua leitu eta ondorengo hausnarketak berarekin partekatuzko.



KikiliSalda taldeko antzezleak, emanaldia hasi berrikan. TXINTXARRI



Esti Martinez Diaz de Cerio, erdian, irakurleekin solasean. TXINTXARRI

Martxoaren 8ko edukiak, kanal berezi batean

Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan udalak nahiz herriko zenbait gazte feministek antolatatu dituzten ekimenen jarraipen berezia egin du TXINTXARRI aldizkariak, paperean nahiz www.txintxarri.eus atari digitalean. Horrelakoetan egin ohi duen moduan, sarean argitaratutakoa jasotzeko kanal berezi bat prestatu du eta irakurleen

eskura jarri du lantaldeak: albisteak, kronikak, argazki galeriak, bideoak, programetako hitzorduak banan-banan jasotzeko agenda...

Aldizkari honetan argitaratutakoak izan dira aurtengo Martxoaren 8arekin lotura izan duten azken ekimenak. Irakurtzeko, eskaneatu QR kode hau sakelako telefonoarekin.



Ez dituzte onartu LOOPAren eskakizunak

Hil honetako ohiko bilkura aurrera eraman du udal korporazioak. Askotariko gaien gainean hitz egin dute, horien artean, LOOPAren mozioa eztabaidatu dute; horrek, ordea, ez du aurrera egiteko nahiko babes lortu, eta, beraz, ez du aurrera egin

Txintxarri

Otsailaren 10 eta 13ko bilkuren aktak onartzearekin (aho batez) ekin dio udalbatzak hil honetako ohiko udalbatzarrari, eta ostean, otsailaren 10etik martxoaren 9ra artean emandako alkatetza dekretuen berri eman du Agustin Valdivia alkateak.

Euskara Batzordearen lehen-dakaritza hartu berri duen Estitxu Alkorta Barraganekin lotutako zenbait puntu jakintzat eman dituzte gero. Aipatu postu horren eskuordetza onarpena ziurtatzen duen alkate dekretuaren berri eman du Valdiviak lehenik, eta Lasarte-Oriako Tokiko Gobernu Batzarraren osaera aldatzen duenarena gero. Ostean, otsailaren 28ko 2025/337 Alkatetza Dekretuaren berri ere eman du, zeinarekin Alkorta bigarren alkateorde izendatu den.

Bosgarren alkatetza dekretu baten berri eman du ostean Valdiviak, hilaren 5eko 386/2025arena. Horren bitartez, udalak Segurtasun eta Osasun Batzordean izango duen ordezaritza instituzionalak izendatu ditu.

Gai ordenako zazpigarren puntuan alkatetzak proposatu du Organo Kolegiatueta Korporazioaren ordezkariak izendatzea, Bozketa egin dute, eta hau izan da emaitza: Aldeko hamar boz (PSE-EE eta EAJ) eta 6 abstentzio (EH Bildu, ELOP eta PP). Alkaberden hitzarmena onartzea eztabaidatu dute ostean, eta horrek, aldiz, honako emaitza izan du: Aldeko 14 boto (PSE-EE, EH Bildu eta EAJ) eta 2 abstentzio (ELOP eta PP).

2023ko inbentarioaren zuzenketa onartu dute jarraian (aldeko hamabost boz eta abstentzio bat), eta antolaketa azterlanari aurkeztutako alegazioak deuseztatzea eta azterlana behin betiko onartzea mahaigaineratu du ondoren, alkateak, hamargarren puntuan. Bi alderdik gaiarekiko euren ikuspuntua erakutsi dute (ELOPek eta EH Bilduk) eta bozketa egin dute gero. Gaiak aurrera egiteko adina babes jaso du: aldeko hamar boto, aurkako bost eta abstentzio bat.

Hamaikagarrenetik aurrera

Lanpostuen zerrendaren aurka aurkeztutako berraztertze

errekurtsoaren baliogabetzea onartu du udalbatzarrak gai ordenako hurrengo puntuan (aldeko hamar boz, aurkako lau eta bi abstentzio batu ditu), eta hamabigarrenean, berriz, 2025. urteko lanpostuen zerren eta udal plantilla organikoaren lehengo aldaketa onartu edo ez eztabaidatu dute. Horrek ere aurrera egin du, aldeko hamar bozekin, aurkako laurekin eta bi abstentziorekin. Saioarekin aurrera egin, eta lan poltsen araudiaren aldaketari hasiera emateaz mintzatu dira. PSE-EE eta EAJ alde agertu dira (10 bozka) eta EH Bildu, ELOP eta PP, berriz, abstenitu egin dira (zazpi boto).

Ostean, ofiziozko berrikuspen espedienteko alegazioen zati bat onartzea eta espediente Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari bidaltzeaz aritu dira hamalagarren puntuan. Aldeko hamar boz bildu ditu (PSE-EE eta EAJ), aurkako lau (EH Bildu) eta bi abstentzio (ELOP eta PP).

Galdera eta erreguen tarteari ekin aurretik, bozeramaileen batzarrak aurrez onartutako mozio bat landu dute. LOOPA

Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Alde taldeak aurkeztu du aipatu mozio hori, *Osasun publiko eta kalitatezkoaren alde, gure medikuak non daude* izenburupean, eta beste zenbait konturen artean, honako eskerak egin dizkio udalbatzarrari, "herritarren instituzio gertukoena eta lasarteoriatarren interes eta eskubideen ordezkari hurbilena" den aldetik. Lehenik eta behin, Donostialdeko ESiko arduradunekin izandako bileraren eraginkortasun eza ikusita, udalak Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailburuarekin bilera egiteko eman beharreko pausoak ematea. Bileran, mediku falta dela-eta lasarteoriatarrek pairatzen duten babesgabatasun eta sufrimendua adierazteaz gain, horrek sortzen dituen ezinegona eta haserre helarazi, eta gure udalerriko egoera larriari buelta eman ahal izateko txoke plana modu urgentean aurkez dezala eskatzeko. Horrekin batera, udalak kudeaketa horien emaitzen berri ematea herritarrei ere galdegin dute, eta baita ere aipatu erakunde horrek osasun arloko eskumenik ez duela jakitun izanda, aldi berean erakundeak herritarren ongizatearen defentsan duen ardura eta pairatzen duten egoeraren larritasuna kontuan hartuz, pobrezia energetikoari aurre egiteko hainbat neurri indarrean dauden moduan, antzeko emergentziazkoak ezartzea osasun pobrezia egoeran egon daitezkeen Lasarte-Oriako norbanakoentzat eta familientzat. Gaiak ez du aurrera egin; alde agertu dira EH Bildu, ELOP eta PP alderdiak

(sei boto) eta, aurka, berriz, PSE-EE eta EAJ.

Galdera eta erreguak

Hainbat izan dira hil honetako saioan galdera eta erreguen tartean mahaigaineratu dituzte gaiak ere.

PP alderdiak, adibidez, sorospen etxea martxan jartzearen gainean galdegin du, eta N-1 errepidea estali edo lurrazpiratzeaz ere bai.

EH Bilduk, berriz, Gizarte Zerbitzuetako langileak bizitzen ari diren lan egoeraz jakin nahi izan du, hala nola, egun zenbat langile dauden aktiboki lanean, eta bajan daudenekin egin ezin dituzten lanak, jardunean dauden lan kargan nola eragiten duen. Horrekin guztiarekin batera, Gizarte Larrialdietarako Laguntzeaz ere galdegin du udal gobernu taldeari.

Kirol sailari ere zuzendu zaio alderdia. Jakinarazi du herriko kirol elkarte batek eskaera bat erregistratu duela, zeinaren bidez eskatu duen 2024. urteko diru laguntzen % 40 noiz ordainduko dien udalak. Hori hala izanik, aipatu alderdiak jakin nahi izan du ordainketa hori noiz gauzatu asmo duen gobernu taldeak. Bestetik, kirol elkarteak erregutu du aurtengo dirulaguntzen deialdia ahalik eta lasterren argitara dezatela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Horrekin guztiarekin batera, EH Bilduk jakin nahi izan du ere kirol elkarteari erantzun ote zaion.

Gai bakoitzari erantzuna eman dio dagokion saileko ordezkari politikoak.

Hezkuntza komunitatearen elkarlana sustatzeko asmoz

EH Bilduk bilera bat antolatu du Lasarte-Oriako zenbait eragileekin batera, hezkuntzaren alorrari buruz solastatzeko

Txintxarri

Hezkuntzan elkarlana sustatzeko asmoz, EH Bilduk hainbat ekimen plazaratu ditu. Hezkuntza komunitatea ikastetxetik haratago doala ulertuta, alderdi politikoak ezinbestekotzat jo du ikastetxeekin batera elkarlanean aritzeko lekuak sortzea, heziketa ez formala hezkuntza sare horren parte dela argudiatuta.

Izan ere, gizarteak erronka ugari dituela jakinarazi du, baita horiek hezkuntzak erantzun behar dituela esan ere. Ideia horretatik errotuta eman dituzte euren proposamenak; haurrekin eta nerabeekin aritzen diren agente guztien elkarlana bultzatzeko beharra azpimarratuta.

Hasteko, Hezkuntza Kontseilua sortzea proposatu dute, garran-

tzitsua iruditzen baitzaie herriko hezkuntza komunitatea antolatzea Lasarte-Oriako erronkei erantzuteko. Era berean, udalak eskainitako baliabideak nahikoak ez direla uste dutela adierazita, alderdi horretako kideek hezkuntza teknikariaren postua sortzea beharrezkotzat jo dute. Bukatzeko, udaleko eskola kontseilua indartzearen aldeko aldarrea erakutsi dute.

Aipatzekoa ere bada, ekimen horien harira, EH Bilduk 15.000 euroko diru partida gordetzea proposatu duela, besteak beste, herriko hezkuntza komunitatearen erronkak zehazteko eta diagnostikoaren lanketarako.



EH Bilduko ordezkariak eta herriko eragileak, elkartu ostean. EH BILDU



Hesi batzuk eta seinale bat jarri dituzte pasealekua itxi duten eremuan. TXINTXARRI

Oria alboko pasealekua itxi dute, obrengatik

Michelingo kiroldegi berria eraikitzen ari diren eremutik gertu dago bide hori, Zubieta eta Usurbilerantz doana. Oinezkoek edo bidegorria erabiltzen dutenek Blas de Lezo kalerantz hartu eta Geltoki kalean barrena doan bidea erabili behar dute orain

Txintxarri

Oria ibai alboko pasealekutik Zubieta edo Usurbileraino joateko ohitura dutenek aldatu egin beharko dute ibilbidea denbora batez, pasabide hori itxi duelako udalak berriki, Michelingo kiroldegi berria eraikitzeko obrak direla-eta. Erakunde horretako ordezkariak argudiatu dute "ezin-

bestekoa" dela lan horiek egitea, "udalerriko kirol instalazioak hobetzeko". Horregatik, aipatu esku hartzeak sor ditzakeen eragozpenak barkatzeko eskatu du.

Pasealekua obra horiek amaitu arte itxita egongo denez, erabiltzaileek eskuinetara hartu beharko dute, Blas de Lezo kalerantz. Michelingo kirol gune-

ra iristerakoan, Geltoki kalean barrena doan bidetik segi beharko dute Zubieta edo Usurbilera joateko. Udallerri horretako lurretan dagoen bidegorri zatia ere, gero Oria ibairantz doana, itxita egongo da.

Kirol azpiegitura hori eraikitzeko aurrekontua 18.951.551 eurokoa da.



NEURE KABUZ

AIZPEA AMAS

Ispilutxo

"Ispilutxo, ispilutxo, nor da erreinuko ederrena?" galdetzen zion ispilu magikoari erregina maltzurak. Ispiluak, ordea, beti erantzun bera ematen zion, eta, "Edurne Zuri da" esanez zapuzten zituen haren ametsak. Edurne Zurirekin ez dakit, baina erreginarekin frustrazioarekin % 100 enpatizatzen dut: ba al da norberak desio duena esaten duen ispilurik?

Ume txikiak ispiluari begiratu, eta irribarrez begiratzen diote aurrean dagoenari: gustuko dute ikusten dutena, haren begitxo, sudurtxo, belarritxo, eskutxo eta hankatxoekin. Urteak betetzen doazen neurrian, ordea, lehen ikusten ez zituzten gauzak antzematen hasten dira. Oraingo honetan ere, a ze sorpresa, neskak gara gure burua epaitzen lehenak, 5 urte baino ez ditugula.

Denborarekin ispiluari egiten dizkiogun galderak ere aldatuz joaten dira. Duela 25 urte argaltasuna zen ispilu aurrean bilatzen genuena, eta detailerik txikienari ere erreparatzen genion aurrez aurre jartzean: aldakako hezurtxo nahikoa ikusten al zen, bi hanken artean tarte nahikoa ba ote zegoen edo lepaustuia nahikoa markatzen al zen. Egungo gazteentzat, berriz, azal perfektua omen da desira eskuraezina: zimur, begizulo edo eguzki aztararik ez duena, masail markatu eta ezpain mamitsuekin.

Ispiluaren isla aseezina da, eta etengabe eskatu eta eskatu ibiltzen da: "Krema hori behar duzu, granoak desagertzea nahi baduzu", "kaloria gehiegi dira, gutxiago jan behar duzu eta ariketa gehiegi egin". Inoiz ez da nahikoa izango, ordea: kremaz gain, maskarilla beharko da hurrena, eta gero, begi inguruko lozioa eta ondoren, ezpaintedako serum... berak nahi duena eman ala ez eman, ez da inoiz konformatuko.

Edurnezuri eta zazpi ipotxak ipuineko ispilua egia baino ezin zuela esan kontatzen du istorioak. Ziurrenik, gurean ditugun ispiluek egia esango balute, beste modu batez begiratu genioke geure buruari, baina hitzik egiten ez duten bitartean, agian kasu gutxiago egiten hasi beharko ginatke...

Hilaren 19an mediku bakarria aritu da herriko osasun etxean

Osasun publikoaren aldeko borrokan ari den LOOPA plataformak salaketa berri bat egin berri du

Txintxarri

LOOPA Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Aldeko plataformak ohartarazpen bat bidali dio berriki TXINTXARRI aldizkariari, eta jakinarazi, hilaren 19an, asteazkenarekin, mediku bakarria egon zela herriko anbulatorioan. Horrekin batera, gogorarazi du ia 20.000 biztanleko Lasarte-Oria 12,5 mediku dagokizkiola.

Egoera hori "larria" dela azpimarratu du eragileak, eta horri erantzuna eman asmoz, gutun bana igorri diete Osasun sailburu Alberto Martinez Ruiz, eta

Osakidetza zuzendari Susana Lopez Altunari. Eskutitz horien kopia bat bidali diote, baita ere, Agustin Valdivia alkateari.



LOOPAren elkarretaratze bat. TXINTXARRI

Osasun ordezkariari bidalitako eskutitza

Osakidetza Zuzendaritzari

Lasarte-Oriako herritar eta Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Alde (LOOPA) plataformako kide garen aldetik, gustatuko litzaiguke gaur, martxoaren 19ko asteazken goiz honetan, gutxienez, Lasarte-Oriako anbulatorioan jasaten ari garen egoeraren berri ematea Gaur, Lasarte-Oriari esleitutako 12,5 kupo medikoetatik, mediku bakarria dago anbulatorio osoan. Mediku horrek, bere kupoa eta gainerako medikuena zaintzeaz gain, etxeko larrialdiak ere artatu behar

ditu. Mediku horrek etxe batera joan beharko balu, eta une horretan bihotzekoa edo antzeko egoera larriren bat pairatzen duen norbait iritsiko balitz anbulatorioa, bistakoa da bizirauteko aukerak oso txikiak izango zituela.

Jakin badakigu Alkateak eta Osakidetza Zuzendaritzak datorren ostiralean, hilak 21, egingo duten bileran muturreko egoera horren jatorriak aztertzeak aukera izango dutela eta, horrela espero dugu, txoke plan bat planteatzeko. Gure aldetik, zure esanetara gaude, behar izanez gero, laguntzeko.

Plataforma honek behin baino gehiagotan eta hainbat erakunde publikotan (Arartekoa, Udala, Osasun Saila, Osakidetza...) formalki ezagutarazi eta salatu duen egoera larri honen ondorioz sor daitezkeen erantzukizunen aurrean, Osakidetza Zuzendaritza hori informatutzat ematen dugu mezu elektronikoa honen bidez.

Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Alde



Celestino Rivera, egin berri dituen bi lanak erakusten, lantegi gisa erabiltzen duen garajearen. TXINTXARRI

"Asko erlaxatzen nau egurra taillatzeak"

Haritz egurrez egindako mural bat eta honezkero Biyak Bat adinekoen egoitzara eramán duten ispilu eder bat. Bi horiek dira Celestino Rivera herritarrak egin dituen azken lanak. "Izugarri" entretenitzen da horrelakoekin bere garaje-tailer kuttunean

Iñigo Gonzalez Sarobe

Orduak eta orduak igarotzen ditu tailer bihurtutako garajearen Celestino Riverak (Alaraz, Salamanca, 1943). Bere ekimenez edo norbaiten enkarguz izan, lan ederrak burutzen ditu batez ere zura (haritzarena edota pagoarena) edota beira erabilita. Urte batzuk dira TXINTXARRI bere txoko kuttun horretan azkenekoz

izan zenetik, eta itzuli egin da, Celestino bera erredakzio taldearen bulegora abisua ematera joan ostean. Bukatu berri ditu bi lan: haurrak eta hegaziak dituen mural bat, batetik; eta Biyak Bat adinekoen egoitzan jarri duten ispilu bat, bestetik.

"Asko erlaxatzen nau egurra taillatzeak", kontatu du berak margotutako garajearen pertsia-

na igo berritan –sagar gorri bat berde koloreko hesiaren erdian, eta fruta horren barruan, har txuri bat, jakia alde batetik bestera zeharkatzen-. Nabaritzen da "izugarri" entretenitzen dela egurrezko lan, ispilu eta bestelakoak egiten, tailerrera sartu eta ia txoko guztietan dituelako lanak zintzilikatuta: 1936ko gerra garaian lehendakari izan

zen Jose Antonio Aguirre erbestean nola bizi zen erakusten duen koadro bat, Eusko Jaurlaritzaren eta Donostiako Orfeoia- ren ispilu bana eta baita kalean edota mendian ibiltzeko makil sorta dotore bat ere.

Mende erdiz Lasarte-Orian

Gogotik lan egin zuen Riverak han eta hemen, 60 urterekin jubilatuta arte. Besteak beste soldatzaile aritu zen eta "edozer" soldatzeko makinak tailerlean gordeta ditu oraindik, tarteka-marteka erabiltzen dituenak: "Zerbait soldatzea behar baduzu, ekarridazu eta egingo dut", esan dio kazetariari. Auskalo zenbat pertsonari proposatu dien gauza bera.

Alaraz herrikoa da jaiotzez baina gazte etorri zen Euskal Herrira: Ordizian bizitzen hasi zen 21 urterekin, eta baita lanean ere, Aristrain lantegian. "Ikasketak askorik ez nuen, oinarrizko hiruzpalau gauza nekizkien, baina azkar ikasi nuen lanbidea eta lehen mailako ofizial bihurtu nintzen", gogoratu du. Egun batean iragarki bat ikusi zuen *El Diario Vasco* egunkarian: "Luzuriaga fabrikaren soldadoreak behar zituzten eta hara joan ginen proba egitera lau langile: Erreterria, Hondarribia eta Valladolideko bana eta ni". Dagoeneko han lan egin zutenen pare edo "are hobeto" jardun zen Rivera, eta berehala kontratatu zuten. "3.282 pezeta irabazten nituen hilero aurreko lanbidean, eta, Luzuriagan, 4.700. Ez nuen bitan pentsatu".

Lana izan da herritarraren bizitzako zutabeetako bat, eta bestea, "garrantzitsuen", Mari Amparo Chocarro emaztea. Bata zein bestea Donostiako Moraza kalean bizi ziren ezagutu zirenean

eta 1973an etorri ziren Lasarte- ra bizitzera, hurrengo urtean ezkontzeko. Txartel hotel atzeko etxeetan erosi zuten pisu bat eta Salamancatik etorri ziren Riveraren gurasoak beraiekin bizitzera, baina lankide zuen- tako batek honakoa esan zion: "Toki ona da baina aldapatsua, egunero lanera joateko jaitzi eta igotzen ariko zara? Eta familia duzuenen? Bizitoki erosoago bat beharko duzue". Hori horrela izanik, orduan eraiki berri zegoen Sasoeta auzoko inguruak gustatu zitzaizkion Riverari eta apartamentuetako bat libre zegoela jakinda, Aralar plazako 1. zenbakira mugitu ziren, gaur egunera arte. "51 urte daramatzagu herrian bizitzen". Urtean zehar, hori bai, jaioterrira itzultzeko tarte bat hartzen du beti.

Etxetik gertu du garaje-tailerra Riverak, Andatza plaza pasa eta Sasoeta ibilbidearekin bat egiten duen iskinan. Lehen esan bezala, urte hauetan guztietan egindako lan ugari eta soldatzeko tresneria gordetzen ditu, baina baita gai eta mota guztietako liburuak ere, eskuekin lanak egitea bezainbeste edo gehiago gustatzen baitzaio irakurtzea. Bere bildumako lan kuttunetako bat hartu du eskuetan, historian zehar Aita Santu izan direnen erreposoa egiten duena, eta, TXINTXARRI-rekin egoteko hartu duen tarte guztian bezala, horri lotutako pasadizo eta anekdotak kontatu ditu. Eskuekin bezain trebea da mihiarekin.

ESKUEKIN LAN EGITEA BEZAINBESTE EDO GEHIAGO GUSTATZEN ZAIO EDOZERI BURUZ IRAKURTZEA RIVERARI

Gazteen osasun mentalaz eta emozionalaz hitz egingo dute

Borobilean Elkarteak hilaren 26an egingo du hurrengo solasaldia, Oriarte Landaberri institutuan, 19:00etan

Txintxarri

Hilabete honetako borobila gazteen osasun mentalari eta emozionalari buruzkoa izango da, Borobilean Elkarteko kideek iragarri dutenez. Ohi bezala, galdera ugari partekatuko di-

tuzte bertaratzen direnekin: Zer moduz gazteak? Eta sistema? Lasarte-Orian eta inguruko herrietan, zer berri?, eta horrelakoak datorren asteazkenean elkartuko dira, hilak 26, 19:00etan, honezkero gogoeta-

gune bilakatu duten Oriarte Landaberri institutuko musika gelan. Mahai ingurua euskaraz aurrera eramango duten arren, gogorarazi dute behar duenarentzat uanean uneko itzulpen zerbitzua dutela.

Jone Murua psikologoa, Hernaniko Udaleko ordezkari Aitor Lukas, DBHko orientatzaile Saioa Larruskain eta Oihan Agirretxe gizarte langilea izango dira aipatu saio horretako gonbidatuak (azken bi pertsona horiek lasarte- teoriatarak dira).

Jardunaldi Antifaxistak antolatatu ditu Lasarte-Oriako GKSak

"Azkenaldian hedatzen ari diren ideia erreazionarioez kezkatuta, Jardunaldi Antifaxistak antolatzea erabaki dugu", azaldu dute Lasarte-Oriako GKSko kideek. "Kontzeptu horiek hartzen dituzten formak aztertuko ditugu eta gonbidatuek horiei aurre egiteko aholkuak emango dizkigute. Bestalde, aisialdirako abagune

egokia izango dugu, grafiti tailer eta musika emanaldi bana egingo baitituzte herriko zenbait gaztek", zehaztu dute antolatzaileek, herritar guztiak ekimen horietan parte hartzea gonbidatzearekin batera.

Aipatu jardunaldi horiek hilaren 29an aurrera eramango ditu GKSak, herrian barrena, 17:00etatik aurrera. Egitarauko ekimenen gaineko xehetasunak aldizkari honetako Agenda atalean topatuko dituzue, 15. orrialdean.

Ibilgailu eta lagunak alboan, ibili Gipuzkoan

Motorzaleen topaketak antolatzen hasi zenetik 25 urte bete direla ospatzen ari da Scooter Club Euskadi elkarteak. Ekaineko ekimen nagusirako motorrak berotze aldera Gipuzkoari itzulia ematen hasi dira: Iraetara joan eta buelta egin dute lehen etapan

Txintxarri

Aurrez eskatuta ere nekez egokitzen dira motorrak hartu eta Gipuzkoan barrera ibiltzeko horrelako egunak. Hilaren 16an elkartu ziren Scooter Club Euskadi elkarteak dozena bat kide, Oria auzoko Route 33 tabernan, gosalduta eta 77 kilometrokoa izan zen lehen etapari ekiteko: Iraetara joan eta buelta egin zuten, Asteasura jaitsi eta bertan babarrunak bazkaldu ostean. Beste sei aldiz elkartuko dira lurraldea zeharkatzen jarraitzeko datozen hilabeteetan.

Ekimen hori egitarau zabal baten barrukoa da, izan ere, Scooter Club Euskadiko lagunak honakoa ospatzen ari dira: duela 25 urte egin zutela aurreneko hango eta hemengo motorzaleak elkartzeko rallya. Jarduera nagusia, ohi bezala, ekainaren 13tik 15era Lasarte-Orian egingo duten topaketa (gure herrian egingo duten 11.a) izango da. Laster emango dituzte zehetasun

gehiago baina aurreratu dute "ohi baino musika talde ezagunagoak" ekartzekotan direla. Halaber, antolatzaileen helburua da "ahalik eta lasarteoriatar gehienak" erakartzea festa horretara, Vespa eta Lambretta zale eta jabeak izan ala ez.

Gipuzkoako itzuliari ekin aurretik Urdaira sagardotegian batu ziren motorzale ugari, hilaren 1ean, Inauteri larunbatean. Sabelak bapo bete ostean Lasarte-Oriara jaitsi ziren parranda ederra egitera.



Orian dagoen Route 33 tabernatik abiatu ziren partaideak. TXINTXARRI

Mondragon Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan


"Mondragon Unibertsitateetik ikasle gisa hartzen dudan inpresioa hurbiltasuneko da"

BEÑAT LIZARTZA ARIZETA

Herria: Lasarte-Oria

Ikasketak: Añorga Txikiko Amassorain ikastolan eta Lasarteko Oriarte Institutuan.

Gradua: Energiaren Ingeniaritza graduko 3. maila, Galarreta EKO campusean.



-Zergatik aukeratu zenuen Energiaren Ingeniaritza gradua?

Teknologia eta Fisika ikasgaiak motibatzen ninduten eta, hainbat ate-irekita joan ostean, Mondragon Unibertsitateko ikasketak metodologiak erakarri ninduen. Buruz ikastea baino, proiektu baten bitartez ikasitako teoria praktikan jartzean oinarritzen da.

-Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Nire bizitzan aldaketa handia izan da, bai ikasketen aldetik, bai pertsonalki. Jende desberdina ezagutzeak norbaitaren pentsamoldea aldatzen dizu; helduago sentitzen naiz eta gustu eta balioak hobeto finkatuta dauzkat.

-Nola definituko zenuke Mondragon Unibertsitatean jasotzen duzun ikasketako metodologia?

Unibertsitateetik ikasle gisa hartzen dudana inpresioa hurbiltasuneko da. Azken urte hauetan tutoretza saioak egiten dira, eta unibertsitatean hasten garenetik bukaera arte irakasle bat izendatzen zaigu tutore, urte hauetan

zehar orientatzeko. Ikasketako metodologiaren ikuspuntutik, ebaluazio jarraituak eta proiektuak osaturiko seihilekoek ikasleonek une orok interesa bermatzen dute. Izan ere, kurtsuan zehar egindako azterketa eta lan desberdinen bitartez baloratzen da ikasgaiaren jakintza, eta seihilekoaren bukaeran taldekako proiektu bat garatzen da ikasitakoa benetako egoera batean aplikatzen ikasteko.

-Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Aurretik esan bezala, ikasketako metodologia asko gustatu zait, gehien bat talde lana sustatzen duelako.

-Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Lan ikaste Partekatze (LIP) esperientzia. Klasean ikasitakoaz gain, enpresa batean era praktikoan ikasteak nire ingeniari profila garatzen laguntzen didalako. Bestalde, egia da esfortzu estra bat eskatzen duela, eta batzuetan gogorra egiten da.

-Lanean ari zara ikasten duzuen bitartean, Dual eredu. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzun? Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?

2023 urte bukaeran hasi nintzen LIPean, Oronan. Noski, bigarren mailako ikaslea izanik ez nintzen teknikoki gai beste langileek egiten zituzten gauzak garatzeko. Bi urte hauetan zehar izandako esperientziak, teknikoki gauza asko ikastea baino, baliagarriagoa izan zait ulertzeko nola funtzionatzen duen lan talde batek, nola garatzen diren proiektuak profesionalki eta, pertsonalki, nire denbora hobeto kudeatzen ikasteko.

-Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Datorren kurtsuan Erasmus + programari esker Estoniara joateko aukera izango dut, arlo akademikoan eta pertsonalean esperientzia berri baten bila. Etorkizunari begira, ikasten jarraitzeko asmoarekin nabil, arlo zehatz batean espezializatzen eta, ahal den heinean, lana eta ikasketak partekatuz.



TXINTXARRI

Natura, irakasgai

Ene Kantak taldeak *Bisonte-mastodontearen bila* ikuskizuna ekarri du herrira. Historiaurrean kokatutako kontakizuneko protagonistak Aire, Asto, Sator, Oki eta Axeri dira, animalia hori harrapatzea helburu dutenak. Lan horren xedea da txikienei natura zaindu eta errespetatzen irakastea euskarazko testu idatzi, dantza eta kantuak baliatuta.

UDAKO TXOKOAK

AISIALDIA GURIAN, HEZIGARRIA ETA HERRIAN



#EUSKARATIK #EUSKARAZ
#ERAGIN #ERABILI #EZAGUTU
#GUZTIONA #GOGOKOENA

Hilabete osoa: Uztailaren 1etik 30era (25a jai)

1. hamabostaldia: 1etik 15era | 2. hamabostaldia: 16tik 30era (25a jai)

	Ordutegiak	Seme-alaba bakarra	2 anai-arreba	3 anai-arreba
HH3-HH4	10:00-13:00	130 €	120 €	110 €
Hilabete osoa	09:00-13:00	173 €	163 €	153 €
HH5-LH6	10:00-13:00	142 €	132 €	122 €
Hilabete osoa	09:00-13:00	189 €	179 €	169 €
HH3-HH4	10:00-13:00	68€	63€	58€
1. edo 2.				
Hamabostaldia	09:00-13:00	91€	86€	81€
HH5-LH6	10:00-13:00	74€	69€	64€
1. edo 2.				
Hamabostaldia	09:00-13:00	99€	94€	89€

*Ttakuneko bazkideek deskontua izango dute udalekuetako prezio guztietan

GOITXOKO ZERBITZUA
09:00etatik 10:00etara

JANGELA ZERBITZUA
> 15:15ak arte.

Hilabetea: 140€ Hamabostaldia: 80€

*LEKUA geldituz gero egun solteak har daitezke

Ordaintzeko modua: Kontu korrontetik egingo da kobrantza.



**MARTXOAREN 25ETIK
MAIATZAREN 3RA**
**ADI! 25EAN, ASTEARTEAN,
GOIZEKO 10:00ETAN
IREKIKO DA IZEN EMATEA!**



Informazio gehiago:
Tel: 943-37 14 48
aisia@ttakun.eus

www.labur.eus/txokoak2025

(Leku mugatuak)



HH3-HH4

(2020 ETA 2021 BITARTEAN JAIÖAK)

- PSIKOMOTRIZITATE SAIOAK
- IPUINETATIK ETA JOLASETIK ABIATUTA ASMAKUNTZA PLASTIKOA
- GORPUTZ ADIERAZPENA ETA SOINUAREKIN JOLASEAN ARITUKO GARA
- IRTEERAK, 15:00AK ARTE BAT ETA AURTEN, SORPRESA GEHIAGO!

HHS-LH2

(2017 ETA 2019 BITARTEAN JAIÖAK)

- JOSTAKIROLA SAIOAK
- GORPUTZ ADIERAZPENAREN BIDEZ MUNDU BERRI BAT ERAIKIKO DUGU
- TALDE JOLASAK ETA LAGUNEKIN BIZITZEKO EKINTZA SORTA.
- IRTEERAK ETA HAINBAT BISITA GIDATU



LH1 ETA LH2

(AUKERAN 4 EGUN, ASTIGARRAGARA!)

- 1ETIK 14RA UDAKO TXOKOETAN.
- 15ETIK 18RA UDALEKU ITXIETAKO TXANDA TXIKIA ASTIGARRAGARA.
- HILABETEA BUKATZEKO UDAKO TXOKOETAN!

	Ordu-tegiak	Prezioa	Jangela
ASTIGARRAGA + Hilabete osoa	10:00-13:00	220 €	+ 140 €
	09:00-13:00	262 €	
ASTIGARRAGA + 1. hamabostaldia	10:00-13:00	180 €	+ 80 €
	09:00-13:00	203 €	
ASTIGARRAGA + 2. hamabostaldia	10:00-13:00	160 €	+ 60 €
	09:00-13:00	173 €	

*Ttakuneko bazkideek deskontua izango dute

LH3-LH6

(2013 ETA 2016 BITARTEAN JAIÖAK)

- ABENTURA ETA KIROLA
- NATUR EKINTZAK
- UR EKINTZAK
- TALDE JOLASAK ETA PROBAK
- TAILERRAK, IRTEERAK ETA JARDUERA BEREZIAK
- AURTEN HAMAIIKA ABENTURA BERRI! BIZI NAHI DITUZU?



Xabat Martin herritarra, garaile Zarauztarra sarian

Kadete mailako hitzordua izan da Zarautzen, hilaren 15ean. Bakarririk iritsi da herritarra helmugara. Andoaingo Txirrindulari Eskolak talde onenaren saria ere jaso du. Luken Garmendia eta Unai Guisado taldekide eta herritarrek ere parte hartu dute proban

Txintxarri

Eskolarteko eta maila federatutako txirrindulariek hil hasieran ekin zioten errepideko txapelketa garaia. Andoaingo Txirrindulari Eskolan dabilta Lasarte-Oriako ordezkariak maila ezberdinetan eta hilaren 15ean, taldekide eta herritar Xabat Martinek urteko lehen garaipena eskuratu zuen Zarauztarra sarian; Andoaingo eskolak, aldiz, taldeko saria.

Martin kadete mailako taldean ari da lehian Andoaingo eskolan, harekin batera Luken Garmendia eta Unai Guisado herritarrek ere dira partaide. Eskolarteko mailan ere bada herriko ordezkariarik, Aimar Guisado eta Xuar Otamendi.



Goian, Xabat Martin, podiumean. Behean, Andoaingo taldea, sariarekin. D. GARMENDIA

Kadeteek, hilaren lehenean, Beasaingo Usurbe probarekin estreinatuta zuten denboraldia eta astebeite geroago Mendaro Herri Sari Nagusian ere izan ziren borrokan. Horietan lehia bizian ibili ziren arren, ezin izan ziren lehen postuetan sailkatu.

Zarautzen arantza kendu ahal izan zuten. Zumaiara iritsi aurreko ihesaldian sartu zen Martin. Meagatera bitan igo behar izan ziren txirrindulari gazteak eta lehenengoan bigarren igaro zuten herritarrek; bigarren aldian, berriz, lehenengoan izan zen tontorean lehiakideak atzean utzita. Atzean taldekideak tropelean edo taldetxoetan lortu zuten mendatea igotzea.

Jaitsieran, Martinek alde atera zien jarraitzaileei eta bakarririk igaro zuen helmuga; bigarren sailkatua hamabost segundora iritsi zen. Gainerako herritarrei dagokionez, Garmendiak lehen sailkatuek baino lau minutu gehiago behar izan zituen eta Guisadok lasterketa utzi behar izan zuen.

Garaipenaz gain, Meagaseko mendatean lortutako puntuei esker Martinek mendiko saria eskuratu zuen eta Andoaingo

Txirrindulari Eskolak talde hoberearen garaikurra eraman zuen.

Egun bat geroago, hilaren 16an, Lizarran izan ziren lehian kadete mailako Nafarroako txapelketako lehen proban, Si halaran trofeoak. Martinek Oinatz Arruti taldekidearekin bigarren tropelean sartzea lortu zuen garailetik bi minutu. Garmendiak bere kideek baino bi minutu gehiago behar izan zituen helmugara iristeko.

Eskolarteko mailako herriko ordezkariak, aldiz, otsailaren 22an Andoain izan zuten lehen proba eta hilaren 8an Zegaman euren onena eman zuten.

Deban izango dute gazteek hurrengo hitzordua, 33. Amaiak Bat txirrindularien proba.

Euskaldun txapelketa

Gaztetxoez gain, elite eta 23 urtez azpiko mailan Beñat Carbaveda herritarrek Euskaldun txapelketako probak lehiatu ditu Caja Rural-Alea taldearekin. Bi lasterketan izan da lasarte-riatarra tropelean: otsailaren 22an, Zumaiko Sarian; eta hil honen hasieran, Bizkaian aldean, Ereñon.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Beti Gazte KJKE - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Mastegi, Lesaka, Nafarroan.
GORENGO MAILA
Ostadar SKT - Roteta CD Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.
ERREGIONAL I. MAILA, KOPA
Texas Lasarte CF - Iruñi Bosteko KK Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
Vasconia CD B - Ostadar SKT Larunbata. 19:30. Puio, Donostian.
OJM, JAITSIERA
Martutene KE - Ostadar SKT Igandea. 10:30. Martutene, Donostian.
JUBENILEN GORENGO MAILA
Aloña Mendi KE - Ostadar SKT Larunbata. 17:15. Azkoagain, Oñatin.
J. I. MAILA, IGOERA
Texas Lasarte CF B - Tolosa CF C Igandea. 11:30. Michelin kirol gunean.
J. I. MAILA, KOPA
Euskalduna And. SD B - Texas Lasarte CF Larunbata. 15:00. Ubitarte, Andoain.
J. I. MAILA, UDABERRIKO KOPA
Danena KE C - Ostadar SKT C Larunbata. 17:30. Elbarrena, Zizurkilen.
OKM, JAITSIERA
Ostadar SKT - Orioko FT Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean.

K. I. MAILA, KOPA
Ostadar SKT (neskak) - Oiartzun KE B Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.
Touring CD D - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Fanderia, Erreterian.
K. I. MAILA, UDABERRIKO KOPA
Ostadar SKT C - Amara Berri KE Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.
INFANTIL HANDI, KOPA
Internacional CD - Ostadar SKT Igandea. 19:00. Matigoxotegi, Donostian.
INFANTIL TXIKI, KOPA
Usurbil FT - Ostadar SKT Larunbata. 09:00. Harane, Usurbilen.
ARETO FUTBOLA
I. MAILA
Makax Gorka Mar. - Eguzki Arkupe Rehab. Igandea. 12:30. Aliza kirol., Donostian.
III. MAILA, KOPA
Eguzki ISU Leioak - Eibartarrak Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
GAZTEEN MAILA
Eguzki Bodegas Ayasa - Aldapeta Maria ik. Larunbata. 11:15. Maialen Chourraut kirol.
KADETE MAILA
Antiguoko KE CLC Sum. Ind. - Eguzki Goxakis Goxua Igandea. 09:10. Pasai Donibanen.
INFANTIL MAILA
Eguzki B. Escalerilla - Laskorain Larunbata. 09:30. Michelin kirol gunea pil.
Antiguoko KE A - Eguzki Andatza Taberna B

Larunbata. 13:30. La Asuncion ik., Donostian.
SASKIBALOIA
II. MAILA
Eibar Saskibaloia - Ostadar SKT Larunbata. 14:30. Ipuru kirol., Eibarren.
III. MAILA
Carr. Renteria Oiarso SKT - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Don Bosco, Erreterian.
JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA
SaskiAxular - Ostadar Beltza Larunbata. 16:00. Benta Berri kirol., Donostian.
Ostadar SKT - Biko As. Oiarso SKT Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
EUSKAL LIGA, KADETEA
Ostadar SKT - Barakaldo Balon. ESP Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
KADETE ERRENDIMENDU ZILARRA
Arri BKL Txindoki - Ostadar SKT Larunbata. 11:00. Antzizar kirol., Beasainen.
BOLEIBOLA
SENIOR MAILA, GIP. TXAPELKETA
Ostadar SKT - Vendetta Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kirol.
JUBENIL MAILA, GIP. TXAPELKETA
Hernani 2 - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Hernaniko kiroldegian.
KADETE MAILA, GIP. TX., PLAY OFF
Ostadar SKT B - Ipar Titanak A Larunbata. 13:00. Maialen Chourraut kirol.
INFANTIL MAILA, GIP. TXAPELKETA
Aiztondo NKT 2 - Ostadar SKT

Larunbata. 11:00. Ernioeba ik., Villabonan.
PILOTA
INF. I. MAILA, EKIALDEKO TX., 1/2
Intza - Pagazpe Ostirala. 18:30. Loidibarren pil.
ALE. I. MAILA, GIPUZKOAKO TX., 1/2
Ataun - Intza Larunbata. 16:30 (1. partida). Auzoeta, Ataun.
ERRUGBIA
EUSKAL LIGA, I. MAILA
Atl. San Sebastian - Gipuzkoa Sortzen Larunbata. 16:30. Atl. San Sebastian, Donostian.
18 URTEZ AZPIKOA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Gaur Logistica Ordizia Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.
16 URTEZ AZPIKOA
Ges. Okelan Zarautz Beltzak RT - Iruñia RC Larunbata. 12:30. Atsokar kirol gunean.
ATLETISMOA
ESKOLARTEKO PLP
Ostadar SKTko infantil eta alebinek Donostialdeko taldeei zuzendutako proba libreetan parte hartuko dute. Larunbata. Goiza. Antonio Elorza bel., Donostian.
GIMNASTIKA ERRITMIKOA
ESKOLARTEKO TXAPELKETA
LOKEko infantil eta alebin mailako gimnastek euren malletako txapelketako bigarren jardunaldia lehiatuko dute. Larunbata eta igandea. Donostian.

JUDO
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
LOKEko kadete eta infantil mailako kirolariak Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute. Larunbata eta igandea. Urrietako kiroldegian.
XAKEA
II. MAILA, IGOERA
Taula A - Santikutz B Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lokalean.
III. MAILA, FINALA
Anaitasuna Kakute B - Taula B Larunbata. 16:00. Azkoitia.
DUATLOIA
ZUIA DUATLOIA
Lasarte-Oriako kirolariak distantzia ertiko Zuia Duatloian parte hartuko dute. Larunbata. 12:00. Murgia, Araban.
LASTERKETA
TALAI BIDEA
Herritarrek Donostia Hondarribia Talai Bidea lehiatuko dute. Igandea. 09:30. Donostian.
UZ TRAIL
Herritarrek UZ Trail Mendi lasterketan parte hartuko dute. Igandea. 09:00. Urretxun/Zumarragan.
AUTOMOBILISMOA
ANDATZATIK AIARA IGOERA
Mendi goeren Euskadiko txapelketari hasiera emango dio Andatzatik Aiara igoera probak. Larunbata. 14:30. Aian.

Maialen Chourraut, nagusi La Seu D'Urgellen

Pirinioetako Kopako bigarren jardunaldian K1 eta Kayak kros lehiatan garaile izan da Lasarte-Oriako palista. Lehiaketako sailkapen orokorrean ere izan da podiumean Chourraut; K1eko koska gorenera igo da eta Kayak krosean bigarren izan da

Txintxarri

Pauen (Frantzia) lehiatu ostean, hilaren 15ean eta 16an Pirinioetako Kopa La Seu D'Urgellen (Katalunia) jokatu zuten bigarren jardunaldia. Parte hartu zuten bigarren palisten artean, Maialen Chourraut herritarra izan zen eta Lleidako kanala ederki ezagutzen duela argi utzi zuen olinpiar kirolariak; K1 zein kayak krosean gailendu zen.

Hilaren 15ean, K1 modalitateari egin zion aurre Chourrautek. Probako sailkapenean bigarren geratu arren, finalean 87,91 marka egin eta lehen postuan amaitu zuen lehia.

Egun bat geroago, kayak kroseto denbora hartzean hiruga-



Maialen Chourraut (erdian), Pirinioetako Kopako K1 podiumean. NORBERT AGUILERA

ren postua eskuratu eta final laurdenetan sartu zen lehian herritarra. Pausoz pauso txandak gainditu eta finalera iritsi zen arazorik gabe. Helmugan ere lehena izan zen.

Probak irabazteari esker, Pirinioetako kopako sailkapen nagusiko lehen postuetan ere izan zen herritarra. K1ean garaile izan zen eta Kayak krosean bigarren postua eskuratu zuen.

Buruntzaldea IKTKo gazteak, aurrerapausoak ematen

Alebin eta benjamin mailako gazteek euren trebakuntzaren aurrerapenak erakutsi dituzte

Txintxarri

Buruntzaldea IKTKo alebin eta benjaminetik Tolosako Usabal kiroldegian izan zituzten hitzorduak, hilaren 15ean. Estilo eta distantzia gogorrekin aurre egin

eta guztiak euren trebakuntzan pausoak aurrera eman dituztela erakutsi zuten.

Benjamin mailako gazteek tximeleta estiloko 25 m. eta 50 m. probak egin zituzten; Nora

Becerra, aldiz, 100 m. tximeleta eta 400 m. libre saioetan izan zen igerian. 6x25 m. errelebo mistoan ere izan ziren lehian igeriketa taldeko ordezkariak.

Alebinen kasuan, urtearen eta sexuaren arabera 50 m., 100 m. eta 800 m. libre probak eta 200 metroko bizkar zein bular txandak osatu zuten jardunaldia, baita 4x100 m. lau estilo errelebo mistoa ere. Igerilari gazteak ederki jardun ziren eta hainbat probatan markak ondu zituzten.



Ostadar SKTKo Eider Redondo, 60 m. hesi proba lehiatzen. G. REDONDO/MOMENTO DEPORTES

Eider Redondo, laugarren Espainiako txapelketan

Ostadar SKTKo atletak proba konbinatueta bere marka ondu du. Hodei Murgiondo herritarra pertika proban aritu da

16 urtez azpiko pistako Espainiako txapelketa lehiatu zuten hilaren 15ean eta 16an Ourense (Galizia). Estatuko atleta gazte guztien artean bi herritar izan ziren lehian: Ostadar SKTKo Eider Redondo eta Atletico San Sebastian-eko Hodei Murgiondo.

Azpimarratzekoa da Redondoren jarduna. Ostadarreko kirolaria lehen postuetatik lehian aritu zen proba konbinatueta eta bere marka onduz, 3.383 puntu, laugarren postuan amaitu zuen txapelketa.

Hilaren 15ean, goizeko jardunaldian hiru probari egin zion aurre talde urdin-beltzeko kirolariak. Lehiaketa hastearekin batera, sorpresa eman zuen herritarra; 60 metro hesitan garaipena eta bere marka pertsonala ere berri zuen, 9,01.

Altuera proban, 1,54 metroko jauziarekin hirugarren izan zen eta pisuan 8,98 metrora jaurti zuen bola.

Arratsaldeko saioari begira, lehen postuetan zen herritarra eta luzera jauziko hirugarren postuak (5,43 m.) domina eskuratzeko postuetan jarri zuen, faborito zen Olivia Gutierrez galziarraren aurretik.

Lehen bi postuetan zeuden lehiakideak zein Gutierrezek 600 m. lasterketan bera baino marka hobea zutenaren jakitun, azken proban 600 m. lasterketan hasieratik guztia jokatzea erabaki zuen Redondok. Lasterketako lehen zatia aurrean egin zuen arren, ezin izan zion erritmoari eutsi eta 01.50,14ko denbora egin zuen helmugan. Eta horrek laugarren postuan amaitzea ekarri zuen.

Atletico San Sebastian taldeko Hodei Murgiondori dagokionez, pertika proban ezin izan zuen 3,26 metroko langa igaro eta 3,06 metroko marka eginda, hamaiagarren postuan amaitu zuen proba.



Martxoak 10-26 / errigora.eus

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan

EGIN
ESKAERA
ORAIN! >>>



LOKEko gimnastak lehen postuetan sailkatu dira

Amateru mailako bigarren fasea jokatu da Ibarren. LOKEko ordezkariak bakarka zein taldean egin dute lan tapizean. Emaizta onak eskuratu dituzte herriko gimnastek eta podiumeko gorenera ere igo dira Marian Prieto seniorra eta Kadete C taldea

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastek Amateur lehiaketako bigarren faseari egin zioten aurre hilaren 16an, Ibarra kiroldegian. Egun osoko jardunaldian maila ezberdinetako kirolariak bakarka zein taldeka euren lanak aurkeztu zituzten tapizean.

Lasarte-Oriako ordezkariak baja bat izan zuen hitzorduan. Jubenil mailako Maitane Sarmientok belauneko lesio batengatik ezin izan zuen Gipuzkoako txapelketarako txartela batengatik borrokatu.

Gainerako kideak mailaren arabera uztaia, pilota, xingola edo borrekin lanean aritu ziren proban



Kadete C taldeko kideak. LOKE GIMNASTIKA



Eguzki Goxokis Goxuak eta Lauburu KE Ibarra jokalariek, baloia borrokatzen. TXINTXARRI

Eguzkiko gazte eta kadeteek ederki hasi dute bigarren fasea

Areto Futbol taldeak nagusi izan dira lehen jardunaldiko hitzorduetan; 4-9 eta 6-1 gailendu dira

Txintxarri

Eguzki Areto Futboleko kadete zein gazte taldeek Ligako bigarren fasea hasi dute martxoko azken bi asteburuetan. Ederki jardun eta biek garaipena erdietsi dute.

Gazteen mailako Eguzki Bodegas Ayesak hilaren 8an, Pasai Donibanen jokatuak neurtzen

Pescados Alberto Ferrers AF Antxo gairitu zuen nagusitasunez, 4-9. Bigarren jardunaldian atsedean izan zuen eta hala ere, sailkapeneko lehen postuetan da gazte taldea.

Eguzki Goxokis Goxua taldeari dagokionez, hilaren 15ean, Lauburu KE Ibarra A ekipoa

izan zuen aurrez aurrez Maialen Chourraut kiroldegian.

Etxekoek hasieratik jokoaren erritmoa ezarri zuten eta lehen zati ederra eginez, 4-0 aurreratu ziren.

Bigarren zatian, kadeteek aukerak sortu arren, ezin izan zituzten ongi baliatu. Taldeko prestatzaileek azaldu dutenez, "gol aukera garbi ugari izan genituen, baina azken metroetan egindako gure hutsek eta Ibarra atezainak markagailuko aldea handiagoa ez izatea ekarri zuten". Hala ere, Eguzki Goxokis Goxuak bi gol sartu zituen eta bi minutu faltan, aurkariak ere gol bat egin zuen. Azken emaitza 6-1 izan zen.

1.702 zenbakian, kadeteek bi itzuliko liga jokatu zuten iragarri genuen. Baina ez da horrela izango, itzuli bakarra jokatu dute maila honetako lau ordezkariak. Beraz, eskuratutako garaipena garrantzitsua izan da taldearentzat. Hurrengo aurkaria Antiguoko KE izango du, hilaren 23an. Lehia borrokatuagoa aurrekusten badute ere, Donostiako taldea ere gainditzea espero dute kadete taldeko arduradunek.

Amateur txapelketa emaitzak

• Bakarkakoak/bikoteak

Master maila - Paula Martinez - 9º

Senior A maila - Mirian Prieto - 1º

Jubenil A maila

- Noa del Amo - 5º

- Maitane Sarmiento - lesionatua

• Taldeak

Jubenil A - LOKE - 6º

Kadete B - LOKE - 4º

Kadete C - LOKE - 1º * Beltzez podiumeko postuak

eta sailkapeneko lehen postuetan izan ziren, hala nola, senior mailako Mirian Prietok eta Kadete C taldeak lehen postua lortu zuten (Ikus goiko koadroa).

Gipuzkoako finalean

Jardunaldi horretako zein otsailaren 8an lehiatu zen lehen faseako jarduna kontuan izanik, Amateur mailako Gipuzkoako txapelketako finalerako sailkapena zehaztu behar zuen Gipuzkoako Federazioak.

Emaiztak aztertuta LOKEko arduradunak itxaropentsu agertu dira. Zenbaki hau itxi baino lehen ezin izan dute zehaztu

zeintzuk lortu duten finaleko txartela, baina taldeek baita bakarkako gimnastek ere aurrera egingo dutela uste dute.

Eskolarteko txanda

Eta amateurren ostean, infantil eta alebin mailako gimnasten txanda izango da.

Eskolarteko lehiaketako bigarren saioa izango dute Donostiako Carmelo Balda kiroldegian. Alebinak izango dira lehenak lehiatzen hilaren 22an, arratsaldean eta infantilek, aldiz, hilaren 23an goizean. Horiek ere gogor egingo dute lan euren lehietako finalean egoteko.



LOKE BORROKA ARTE MISTOAK

Joel Alvarezekin lanean

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) borroka arte mistoen sailak hilaren 15ean Joel Alvarezekin mintegi berezia antolatu zuen Donostiako Anoetako borroka arteen zentroan. 50 bat kirolari batu ziren UFCKo borrokalari profesional Joel Alvarezek gidatutako saioan lan egitera. Gijondik etorritako Alvarez ezagutu eta entrenamendu saio gogorra egin zuten guztiek.

Jardunaldiari amaiera emateko Lasarte-Oriako Semblante Andaluz elkarteak afaria egin zuten eta horregatik, eskerrak eman nahi dizkiote elkarteari LOKEko kideek.

Lasarte-Oriako Maialen Chourraut kiroldegian lan egin ohi du borroka arte mistoen taldeak (@lasartemma) eta hamaika urtetatik aurrera talde eta ordutegi ezberdinetan egiten dituzte saioak.

Itxaso Iparragirre, Gipuzkoako txapeldunorde

Erredimendu infantil I. mailako nesken finala jokatu da Zizurkilen. Iparragirre herritarra kide duen Zazpi Iturriko eta Bergarako bikoteak izan dira aurrez aurre lehia erabakigarrian. Zazpi Iturri ongi lehiatu arren, Bergarak eskuratu du garaipena

Txintxarri

Pilota modalitate ezberdinetako Udaberri txapelketako zein Errendimendu txapelketako lehen finalak jokatu ziren hilaren 14tik 16ra eta Errendimendu mailako infantil nesken lehiaren herritar bat izan zen jokoan, Itxaso Iparragirre. Zazpi Iturri taldearekin jokatu du binakako txapelketa herriko pilotariak; Maria Balerdi izan du lagun eta txapeldunorde izan da.

Finalerdian, hilaren 7an, Aizkorpe garaitu eta astebete geroago Bergarako bikoaren aurka jokatu zuten azken lehia Balerdi eta Iparragirrek. Zizurkilen batu ziren ikusleen aurrean, Bergarako taldeak txapela jantzi zuen.

Hasieratik aurre hartu zuen Bergarak 4-0 eta jarraian, tantoak txandakatzen joan ziren. Partidako zati batean Iparragirre herritarrek jokoaren pisua hartu eta lan ederra egin arren, Zazpi Iturri ezin izan zion



Iparragirre (beheko ilara, eskuineko bigarrena), gainerako finalistekin. GIPIZKOA PILOTA

neurketari itzulia eman eta Bergarak 18-14 irabazi zuen.

Intza, finalerdietan

Maila batzuetan finalak jokatzeko hasi diren arren, beste batzuetan oraindik fase finala lehiatzen ari da eta Intza elkartereko kideak, esate baterako, Gipuzkoako zein

Ekialdeko txapelketetako finalerdie egingo diete aurre hurrengo jardunaldian.

Alebin I. mailako bikoteak Ataun izango du aurkari Gipuzkoako txapelketan eta Ekialdeko lehiako finalean egoteko borrokatuko da Infantil I. mailako bikoa Pagazperen aurka.

Taula Xake Klubeko kideek hitzordu garrantzitsua dute

Herriko xake klubeko B taldeak III. mailako finala jokatu du; A ekipoak, aldiz, igoera faseko azken saioa

Taula Xake Klubeko taldeak Gipuzkoako Ligako azken txanpara iritsi dira eta hilaren 22an Taula B taldeak bere mailako titulua izango du jokoan.

Azken jardunaldian Gros Lren aurka 3-1 galdu arren, III. mailako taldea bere multzoko lehen postua eskuratu du fase erregularrean 23,5 punturekin. Taulako kideek ez zuten egun ona izan Ixone Juradok, Unai Gradok eta Eneko Montesek ezin izan zituzten euren aurkariak gainditu eta Mikel Manterolak garaipena lortu zuen aurkaria agertu ez zelako.

Klubeko arduradunek jakitera eman digutenez, "emaitza ez zen garrantzitsua, dagoeneko finala jokatzeko sailkatua zegoen taldea eta bigarren mailarako igoera ere ziurtatua zuen".

Hitzordu garrantzitsua hilaren 22an izango du Taula Bk, Gipuzkoako txapeldun titulua. A multzoko irabazle Anaitasuna Kakte B izango du aurkari Azkoitian jokatu den lehiaren eta Lasarte-Oriako jokalariek euren onena emango dute garaikurra herrira ekartzeko.

Taula A taldeak, aldiz, garai berria eskuratu zuen lehen mailarako igoerako lehiaren. Ber-



Xake partida bat. TXINTXARRI

gara Aren aurka neurtu zituen indarrak Lasarte-Oriako ordezkariak, hilaren 15ean, Bergaran.

A taldeko kideak ederki jokatu eta 1-3 gailendu ziren. Jose Ignacio Etxeberriak eta Erlantz Sanchezek garaipena erdietsi zuten eta Miguel Maria Barojak eta Pablo Arrondok, aldiz, berdinketa. Horri esker, sailkapen buru da herriko taldea 12,5 punturekin, baina gertu dute Beraun Bera B (12 p.)

Hilaren 22an, erabakigarri izango den faseko azken jardunaldia jokatu dute Santikutz Bren aurka.

Mendi igoeren lehia Andatzatik Aiara igoerarekin hasiko da

Aitor Manso herritarra gogotsu da probak hasteko eta Euskadiko lehiari emango dio aurten lehentasuna

Txintxarri

Euskadiko Mendi igoeren denboraldia hasiko da hilaren 22an Aian. Andatzatik Aiara igoera izango da lehiaketako lehen proba eta izena eman duten 40 parte hartzaileen artean, Aitor Manso herritarra izango da. Ez da inguruko gidari bakarra izango Andatzatik Aiara proban Ikullu Racing taldeko Pablo Muga zubietarrak ere parte hartuko du. Mugak Peugeot 306 GTI 16V autoarekin egingo du igoera.

Aitor Mansok iazko emaitzak hobetu nahi ditu aurten; 9. mai-

lako podiumeko gorenera igo zen eta plaza bakarreko ibilgailuen mailan bigarren izan zen. Lasarte-Oriako gidariaren hitzetan, "helburua txapelketa irabaztea izango da". Horretarako lehiaketako proba guztiak eta Nafarroako txapelketako batzuetan parte hartuko duela aurreratu du.

Lehia hasteko prest agertu da gidaria eta eguraldiarekin ere gogoratu da: "Gogotsu nago. Andatzatik Aiara igoera etetik gertu dagoen proba bat da. Eguraldia lagun izatea besterik



Iazko Opakuako igoerako irudia. A. MANSO

ez dugu falta. Asko gozatuko dugu eta ea zer gertatzen den lehen proban".

Helburuak moldatu

Mansok BRC B49 ibilgailua erabiliko du bere xedea eskuratzeko.

Iazko denboraldia amaitzearekin bat, herritarrek kotxea salgai jarri zuen auto berri bat eskuratzeko asmoarekin, baina ezin izan du lortu eta aurreikuspenak aldatu behar izan dituela onartu du: "Espainiako txapelketak itxaron beharko du. Gure ibilgailua 2019 urtekoa da eta Espainiako txapelketan 2025eko kotxeekin ari dira lehiaren. Egungo ezaugarriekin ezin gara lehiakor izan eta haien aurka borrokatu".

Hala ere, txapelketako probaren bat egingo duela aurreratu du: "Ez dugu erritmoa galdu nahi eta horregatik, lasterketa pare bat egingo ditugu Espainiako txapelketan".

Eta hurrengo urtera begira, itxaropentsu agertu da: "Auto berria lortzen badugu, Espainiako txapelketa irabaztea izango dugu helburu".

Hasiberriei zuzendutako padel ikastaro berria

Lasarte-Oriako kirol zerbitzuak hasiberrientzako padel ikastaro berria eskainiko du apirilaren 28tik ekainaren 18ra.


0 mailatik hasten diren herritarrei zuzendutako saioak astelehena eta asteazkenetan eskainiko dira 20:00etatik 20:50era.

Kirol zerbitzuek jakitera eman dute, taldea martxan jartzeko gutxienez lau pertsonak eman beharko dutela izena.

Izen ematea Maialen Chourraut Kiroldegiko bulegoan egin behar da eta hilaren 25a da azken eguna.

Informazio gehiago behar izanez gero, kirolak@lasarte-ori.eus helbidean erantzungo dituzte zalantzak.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Manex

Zorionak, Manex! 9 urte! Jarraitu zaren bezalakoa izaten, eta ikusiko duzu nola Kinton lainoa beti zure zain dagoen abentura berrietara eramateko! Askok maite zaitugu!



Izaro

Zorionak printzesa!!! Muxu pila bat familia guztiaren partetik. Askok maite zaitugu.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitarteak.

Internet

· txintxarri.eus/
zorionagurra.
· Erabiltzaileekin sartu/ Erabiltzaileekin ez baduzu izena eman.
· Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 21	ACHA-ORBEA
LARUNBATA, 22	LASA
IGANDEA, 23	LASA
ASTELEHENA, 24	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 25	KNIESE
ASTEAZKENA, 26	DE MIGUEL
OSTEGUNA, 27	KNIESE

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Etxebeste Farmazia: Elkano kalea 9 behe, Hernani. 943-55 20 87

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUA: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAIINTZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Trastelekua saltzen dut, 20 m2, sotoa da, Sasotan. 4.000 euro. Harremanetarako zenbakia: 644 90 21 09.

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

EROSI

Garaje bat erosiko nuke herri erdigunean irekia edo itxia. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

ERRENTAN HARTU

Etxe bat alokatu nahiko nuke. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzerako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

ERRENTAN EMAN

Apartamentu bat alokatzen dut Landetan (Vieux-Boucau). Urte guztirako edo udan zein Aste Santuan: 688 66 79 82.

LANA

ESKARIA

Ettxeko garbiketa lanak egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta informeak ditut. Harremanetarako zenbakia, 678 35 50 95.

Interna gisa lan ugari egiteko prest nago, besteak beste, adineko pertsonak zaintzeko.

Harremanetarako, 613 95 31 26.

Externa moduan lan egiteko prest nago, 09:00etatik 16:00etara. Dokumentazio guttia eguneratuta dut. Harremanetarako, 623 72 00 61.

Batxilergoko Bigarren mailako ikaslea naiz eta edozein irakasgaietako klase partikularrek emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

2. Batxilergoko ikasle bati Matematiketan laguntzeko eskola partikularrek emateko norbait behar da. Interesa dutenek deitu zenbaki honetara: 660 89 48 14 (Mari Karmen).

12 urteko neska bati zatikiki edo saio partikularrek emateko norbait behar da. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Karreterako bizikleta, BMC SLR03 Beltza eta ondo zainduta. 607 49 16 63 (Aritz).

125 c.c-ko motorra, Piaggio Liberty beltza. 2013 urtean matrikulatuta eta 21.000 km. 616 43 47 65 (Joxe).

Opel Antara 150cv salgai. 2008. urtekoa. Gris koloreko

larruzko eserleku berogarriekin. Funtzio anitzeko txartela. Nabigatzailea pantailan eta esku librekoa. Aleazio-hagunak. Hurbiltasun-sentsorea. Aire girotua. Likidoen aldaketak eginda. Balazta-pastilla eginak. % 80ko estalkiak. Autoa oso ondo dabil eta oso zabala da. 7.000 euro. 672 41 67 61.

Kawasaki Z900 saltzen dut, 2018. urtekoa, 17.504km-rekin. Estrak ditu, SC ihes-hodia, balazta-heldulekuak, erorketen aurkako gomak, direkzio-ese-kidura eta marboko estalkiak. Dazkadaren serieko gauza guztiak motorrekin batera entregatuko ditut. 6.000 euro. 606 59 90 64.

BMW X5 4.4.I saltzen dut. 2001. urtekoa. 4000 euro. 606599064

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaituzte gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Lierni Apaolaza Urdanpileta.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Xuban Urdalleta, Nikola Iraola, Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola eta Intza Aginagalde.

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

LARUNBATA 22

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Udaberri festa aurrera eramango du Zabalata Auzolan elkarteak, eta horretarako honako egitaraua iragarri du:

10:00etan, txorien katuak ezagutzeko ibilbidea, Aranzadi elkarteko aditu Miguel Olanorekin.

19:00etan, Lurhats musika taldearen kontzertua.

Arratsaldean zehar talo postua jarriko du elkarteak Basotxo plazan duen egoitzan.

Zabaleta auzoa 10:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Ekintza

GAZTE EGUNA aurrera eramango du LOGA Lasarte-Oriako Gazte Asanbladak, eta honako egitaraua iragarri du:

11:00etan, hitzaldia eta hamaiketakoa.

12:30ean, bertsopoteoa.

14:30ean, gazte bazkaria eta, ostean, gazte argazkia.

16:00etan, ginkana.

18:00etan, Senti gaitzatela! manifestazioa.

22:00etan, Ertz eta DJ Jotaxoren emanaldiak.

Okendo plaza, 11:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Sagardotegi menu goxoa dastatuko dute Virgen de Guadalupe Extremadura Etxeko barrikotean parte hartuko duten herritarrek. **Extremadura etxea, 14:00etatik aurrera.**

LASARTE-ORIA Antzerkia

Kamikaz Kolektiboak *Renata* antzezlaren emanaldia egingo du, Manuel Lekuona helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan eros daitezke. **Kultur etxea, 20:00etan.**

IGANDEA 23

LASARTE-ORIA Zinema

Mary Superchef filmaren emanaldia egingo dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute. **Kultur etxea, 17:00etan.**



LASARTE-ORIA Solasaldia

Borobilean elkarteak gazteen osasun mentalaren eta emozionalaren gaineko tertulia irekia aurrera eramango du. Horretarako, honako hizlari hauek gonbidatu ditu: Jone Murua psikolgoa, Saioa Larruskain DBHko orientatzailea, Oihan Agirretxe gizarte langilea eta Altor Lukas Hernaniko udal ordezkaria.

Hilak 26, Oriarte Landaberrin, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

La luz que imaginamos filmaren emanaldia egingo dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEAZKENA 26

LASARTE-ORIA Antzerkia

Teatro Estudio taldeak *La cantante calva* antzezlaren emanaldia egingo du, helduentzat. Sarrera doakoa da.

Kultur etxea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Borobilean elkarteak gazteen osasun mentalaren eta emozionalaren gaineko tertulia irekia aurrera eramango du. Horretarako, honako hizlari hauek gonbidatu ditu: Jone Murua psikolgoa, Saioa Larruskain DBHko orientatzailea, Oihan Agirretxe gizarte langilea eta Aitor Lukas Hernaniko udal ordezkaria. **Oriarte Landaberri, 19:00etan.**

OSTEGUNA 27

LASARTE-ORIA Antzerkia

Antzerkiaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, Kukuka antzerki

eskolako kideek X. Antzerki Topaketa aurrera eramango dute. **Okendo plaza, 18:00etan.**

OSTIRALA 28

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak *Aun estoy aquí* filma proiektatuko du. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 29

LASARTE-ORIA Jardunaldiak

Lasarte-Oriako GKS Gazte Koordinadora Sozialistak jardunaldi antifaxistak aurrera eramango ditu, eta horretarako, honako egitaraua iragarri du:

17:00etan, Faxismoak hamaika aurpegi mahai ingurua, gonbidatuekin, Gaztelekuan.

18:30ean, graffiti tailerra, Tximistarreta parkean.

20:00etan, Rap musika emanaldiak: MKL, Astroboy, Noctis eta Begi Gorri Selector.

Herriko zenbait lekutan, 17:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Txalo Produzioak-ek *Amak* antzezlaren emanaldia egingo du,



TESS konpainiak erakutsiko du 'La cantante calva'. V. EUGENIA ANTZOKIA

'La cantante calva' antzezlana

Sei hamarkada pasatxo daramatza Danok Kide elkarteak gure udalerraren giza eta kultur garapena sustatzen. Helburu hori duten makina bat jarduera aurrera eramaten ditu ikasturtez ikasturte, hala nola, Formakuntza Iraunkorra izeneko saio sorta, eta horren barruan, antzerkigintza topaketak iragarri ditu. Hori hala izanik, antzerki obra baten emanaldia antolatuko du: *La cantante calva*. Eguneroko bizitzaren parodia ekarriko du TESS Teatro Estudio San Sebastian konpainiak.

Eszenatikiko kontakizuna egiteko, bi senar-emazte agertuko dira oholztan: Smitharrak eta Martindarrak. Londreseko aldirietako etxe ingles batean kokatzen da istorioa. Smith familiak afaltzera gonbidatuko ditu Martindarrak, eta egoera horrek giro itogarria sortuko du bi sendien artean; hipokresiaz eta etsaitasunez betetako elkarriketak izango dituzte.

Ustekabeen suhiltzaileen kapitainaren bisita izango dute. Hori saiatuko da bi familien arteko tentsioa baretzen, baina alferrikakoa izango da ahalegina.

Azken finean, huts egindako komunikazioak gizakiengan sortzen duen arazo iturriaren gaineko hausnarketa egin ahal izango dute ikus-entzuleek. Horiek, gainera, ez dute bertaratzeari sarrerarik ordaindu behar, nahiz eta gonbidapena beharrezkoa dela ohartarazi duten antolatzaileek.

Egilea eta antzerki konpainia

Eugene Ionesco antzerki idazlearen da *La cantante calva*. Surrealistic zetozen adierazpen teknikak eszenara eramatea lortu zuen dramaturgoa izan zen, eta berak idatzitako antzerki obrek ez dute umorea eta gizatasun faltarik; horrez gain, egoera komikoetan aberatsak ere badira. 1950. urtean estreinatu zuten orain herrian erakutsiko duten lana, Donostiako TESSK oholtzaratuko du Manuel Lekuona Kultur Etxean.

Hilaren 26an, 19:00etan, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan.

helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

IGANDEA 30

LASARTE-ORIA Zinema

Paddington en la selva filma emango dute, haurrentzat.

komediazko ikus-entzunezkoarekin igaroko dute arratsaldea, etxeko txikienekin. Sarrerek 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

La ultima reina filma emango dute, helduentzat. Sarrerek, 6 eurotan.

Kultur etxea, 19:30ean.

Euskaraldia martxa hartzen ari da udalerrian

Ahobizi edo Belarriprest izateko izena eman dezakete dagoeneko norbanakoek. Bestalde, herriko koordinazio guneko eragileek bideo lehiaketa erakargarri bat abian jarri dute: banaka edo binaka, familian edota taldeka parte har dezakete herritarrek

Txintxarri

Maiatzaren 15etik 25era aurrea eramango dute hizkuntza ohiturak astindu eta euskari ikusgarritasuna emateko ariketa soziala, Euskaraldia. Laugarren edizioa da aurtengoa eta ohi bezala Euskal Herri osora zabalduko da, baita Lasarte-Oriara ere. Norbanakoen izen ematea ireki berritan eta ahalik eta lasarteoriatar gehienak animatzeko akuilu gisa, Ahobizi eta Belarriprest gisa jardutera animatu dira udaleko Euskara zinegotzi Estitxu Alkorta eta Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdivia, hurrenez hurren. Ondoren, bideo lehiaketaren nondik norakoak azaldu ditu Ttakun Kultur Elkarteko kudeatzaile Haritz Salaberriak.

Elkar mugituz egingo dugu leloa aukeratu dute aurtengo Euskaraldirako eta Lasarte-Orian ekimen hori antolatzen ari den koordinazio guneko kideak ari dira mugitzen, bai. Norbanakoen izen ematea zabaltzeko berritan, agerraldia egin dute Valdiviak, Alkortak eta Salaberriak, herritarrek Ahobizi edo Belarriprest izatera animatzeko eta apirilaren 28ra arte martxan egongo den bideo lehiaketaren xehetasunak azaltzeko.



Ezker-eskuin: Estitxu Alkorta, Agustin Valdivia eta Haritz Salaberria. TXINTXARRI

Belarriprest rola aukeratu du alkateak. Txapa identifikagarria janzterakoan beti ez du euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek berari hizkuntza horretan egitea nahi du eta horixe eskatuko die modu esplizituan. Are gehiago, hizkuntza ohiturak astintzeko ariketa horrek iraungo dituen 11 egunetan soilik ez, urte osoan zehar berarekin jarrera hori izateko eskatu die herritarrei: "365 egunetan izango naiz Belarriprest". Alkorta, berriz, Ahobizi izango da eta aurreneko hitza euskaraz

egingo du beti. Ikusten badu parekoak ulertzen duela eta hizkuntza horretan solasteko gai dela edo gutxienez ulertzen duela, euskaraz segiko du hizketan berarekin. Ariketa sozialean izena eman nahi dutenek sarean egin dezakete, Euskaraldiaren atarian nahiz Lasarte-Oriako Udalaren webgunean. Nahiago badute aurrez aurre inskribatu, herriko zentzuzko establezimendu eta egoitzatan (kultur etxea, udaltxea edota Ttakun Keren bulegoa) eskuorriak eta kutxak topatuko dituzte.

Lasarte-Oriako Euskaraldiaren Koordinazio Gunea osatzen dute Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakunek. Azken horretako kudeatzailea da Salaberria eta aurtengo berrikuntza nabarmenenaren berririk hitz egin du, apirilaren 28ra arte (astelehena) martxan dagoen bideo lehiaketaz. Helburua da herritarrek ariketa sozialera erakartzea, edonork erraz parte hartzeko moduko jarduera horren bidez.

Hiru kategoriako lehiaketa

Interesa dutenek lehiaketaren oinarrietan topatuko dituzte xehetasun guztiak (albiste honekin batera doan errekurtsoko QR kodea eskaneatu dezakezue horretarako). Horietako batzuk aletu dituzte agerraldian, Ihitten elkarteko kideek prestatu duten promozio bideoa erakutsita. Banaka edo binaka, familian edota taldeka parte hartu ahaliko dute herritarrek, sakelako telefonoa hartu eta gehienez ere minutu bat iraungo duen ikus-entzunezko bat grabatu eta bidalita. *Merezi du Euskaraldian parte hartzea!* izango da bideoetako mezu nagusia.

Hiru kategoria prestatu dituzte: banakakoa edo binakakoa, familiakoa (modalitate honetan sartzen dira 16 urte edo gutxiago dituztenak ere) eta talde edo kuadrilletakoa. Maila horietako bakoitzean bina sari emango dituzte antolatzaileek. Bideo bozkatuenaren egileek 500 euro poltsikoratuko dituzte, eta, epaimahaiaren sariak eskuratzen dituztenek, 1.000 euro.

Norbanakoen izen emateari eta Lasarte-Oriako Euskaraldiko bideo lehiaketari buruzko xehetasun gehiago dituzue alboko koadro arrosean.

Izen ematea eta bideo lehiaketa



BIDEO LEHIAKETA

APIRILAREN 28RA ARTE

Lasarte-Oriako Euskaraldiko berrikuntza nabarmenena da. Hiru modalitate ditu: banaka edo binaka, familian edota taldeka. Maila bakoitzean 500 euroko (bozkatuena) eta 1.000 euroko (epaimahaiarena) sariak emango dituzte.



IZEN EMATEA

AHOBIZI EDO BELARRIPREST

Entitateek ez ezik norbanakoek ere aukera dute jada Euskaraldian izena eman eta hizkuntza ohiturak astintzeko ariketa egiteko. Ohi bezala, bi rol izango dituzte aukeran parte hartzaileek: Ahobizi edo Belarriprest. Epemuga, maiatzaren 14a.

Banaka edo binaka	Familian (bi lagun edo gehiago)	Taldean (hiru lagun edo gehiago)
1000€	1000€	1000€
Epaimahaiak aukeratutako bideoarentzat	Epaimahaiak aukeratutako bideoarentzat	Epaimahaiak aukeratutako bideoarentzat
500€	500€	500€
Herritarren boto gehien jasotzen duen bideoarentzat	Herritarren boto gehien jasotzen duen bideoarentzat	Herritarren boto gehien jasotzen duen bideoarentzat

BIDEO LEHIAKETA
EUSKARALDIA

BIDEO LABURREN LEHIAKETAREN OINARRIAK

www.lasarte-oria.eus/euskaraldia